

Euskaltzaindiak euskal literaturaren inguruko zabalkunde lanez sortu duen Jagon saileko lehen liburua dugu 1982ko Bertsolari Txapelketaren azken eta azkenurreko saioak jasotzen dituen hau. Liburuaren atzekaldeko azalean aitortzen denez: «Euskararen pizkunde kezka eroan zuen Euskaltzaindia 1958. urtean Bertsolari Txapelketak antolatzen, Bizkaitik hasi eta Euskal Herri osora zabaltzeko». Ekintza hartatik burutu ziren 1960, 1962, 1967 eta 1980.eko Txapelketa haiek.

Orduko finalak Itxaropena eta Auspoa argitaletxeen liburuetan ikusi zuten argia. Orain ordea, Euskaltzaindiak bere gain hartu du argitaratzea. Baina, oraingo liburu honetan ez da azken saioa soilik jasotzen; bertan datoz Idiazabal eta Durangon jokatu ziren azkenurrekoak ere. Horrek egiten du hain liburu mardula, bere 20,5 x 13 zentimetro neurriaz 427 orrialderako arte. Euskaltzaindiko Jagon sailburuaren hitzaurrez aurkeztua dator, ondotik atalakizun batzorde, epai-mahai, doinu biltzaile eta aurkezleen xehetasunak agertuz. Baita Txapelketa hortan noiz eta non parte hartu zutenen izen-deiturak, lehen eta bigarren aldiak zozketaz A eta B taldeak nola osatu ziren jakinaraziz eta eliminatorietan nortzuk pasatu ziren aurrera. Horrela aisago ikusten bait da azkenurrekoak jokatzera nola iritsi ziren.

Bertsolarien saioetarik, Idiazabal eta Durangokoak osorik datoz, magnetofono jaso ziren bertsoen arabera, eta 1982ko abenduaren 19an Donostiako Balda Frontoian goiz eta arratsaldean jokatu zen azken saioa zer esanik ere ez. Horrez gainera, liburuaren aberasgarri, saio horietan erabili zituzten 80 doinuak pentagramaz jarriak. Eta, bukaeran Txapelketa guziaren koronika labur bat.

Txapelketaz geroztik han-hemenka entzun izan dugu zalan-tzazko zurrumurrurik aski, Amuriza ala Lopategi, ia nork me-rezi zuen. Egia esan, diferentzia handirik ez zen nabaritu. Orain ordea, liburua patxadaz irakurtzeko aukera heldu zai-

gunean ikus dezakegu epai-mahaia bera larri ibili bazen ere, zintzo eta garbi jokatu zuela eta gehiengoan ustez arrazoizko epaiketa izan zela.

Liburu irakurgarria benetan. Bertsolariak heurak ere hor ikasi beharko dute aurrerantzean nola joka. Beti ikasten bait da zerbait, eta hortarako liburu hau ez da batera txarra. Bertsolaritzaren historiarako ere agiri bikaina da.

*Otsalar*